

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1747

AGINDUA, 2022ko martxoaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez, Irale programak 2022-2023 ikasturtean eskainiko dituen irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroen berri eman (H eta I ikastaroak) eta ikastarook egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzen baita.

Irale programaren urteetako ibilbide oparoari esker, euskal hezkuntzan aurrerapauso handiak eman dira euskararen ezagutzaren eta erabileraren normalizazioan. Hala ere, urteak joan urteak etorri, behar berriak sortu dira irakasleen hizkuntza-gaitasunean izan den aldaketa tipologikoaren ondorioz, eta Iralek irakasleen berriazko behar berri horiei ahalik eta ongien erantzun beharko die etorkizunean, orain arte egin duen bezalaxe.

Irale programa, prestakuntza-arloan eragile den aldetik, bete-betean lotzen zaio Heziberri 2020 egitasmoaren Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren bigarren ildo estrategikoari (Irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza), zeinak hauxe baitio irakasleen etengabeko prestakuntzaren inguruan:

«Etengabeko prestakuntzak ez ditu azken xedetzat irakasle eta eskoletako langileak hartzen, ikasleak baizik, eta, alde horretatik, irakasleek konpromisoz eta arduraz jokatu behar dute, delako prestakuntza hori praktikan jarri eta aurretiaz ezarritako helburuak ikasturtez ikasturte betetzeko.

Alderdi indibidualenetan oinarritutako prestakuntza–eredua baztertu egin behar da, eta, horren orde, eskoletan ardaztutako prestakuntza–ereduak bultzatu, lekuan lekuko ikastetxeetako premietara egokitutako proiektuen bitartez, eta, horretan, lekuan lekuko proiektu eta planak hartu behar dira kontuan: hobekuntza–planak, esku–hartze globaleko proiektuak, hezkidetza–proiektuak...; eta hezkuntza–komunitateek bizi dituzten errealitate askotarikoak ere kontuan hartu behar dira: ikastetxeko hezkuntza–komunitateko kideentzako prestakuntza–proiektuak, esaterako.

Dena dela, prestakuntza indibidualak beharrezko izaten jarraitzen du, geure hezkuntza eredu pedagogikoaren esparruko eskakizun berriei erantzuteko batez ere, hura gabe ezin gerta baitaiteke inolako mentalitate- eta sinesmen-aldaketarik. Ezinbestekoa da, hala ere, prestakuntza hori lekuan lekuko ikastetxeak daudeneko testuinguruan kokatzea».

Iralek, jakina denez, euskarazko komunikazio-gaitasunari lotutako goi-mailako ikastaroen bitartez jorratzen du Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren bigarren ildo estrategikoa, irakasleen prestakuntzari dagokiona, alegia. Modalitate bat baino gehiagoko ikastaroak eskaini eta antolatzen ditu, bai helburuei, bai iraupenari eta bai taldekatze-irizpideei dagokienez. Modalitate horietako bat dira, hain zuzen ere, H eta I ikastaroak.

Hori guztia dela eta, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Irale programak 2022-2023 ikasturtean eskainiko dituen irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroen berri ematea (H eta I ikastaroak) eta ikastarook egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzea.

2. artikulua.– Deialdi honen bidez eskaintzen diren ikastaroak.

Deialdi honen bidez 2022-2023 ikasturtean emango diren ikastaroak eta ikastaro bakoitzerako eskainiko den talde-kopurua I. eranskinean daude zehaztuta.

Ikastaro batean bete gabe geratzen diren plazek eskaera eskaintza baino handiagoa gertatu den ikastaroetako plazak emenda ditzakete; betiere, ikastaroak emango dituzten entitateak kontratatzeko prozeduran ezarritako baldintzetan.

3. artikulua.– Ikastaroen hartzaileak.

Deialdi honetan eskaintzen diren ikastaroak honako hartzaile hauek eskatu ahal izango dituzte, bi multzotan banatuta, eskabidea egiteko moduaren arabera:

a) A multzoa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoak eta Hezkuntza Sailaren gainerako zentroak (hizkuntza eskolak, berritzeguneak, ingurugelak, ikuskaritzak, ISEI-IVEI institutua...).

b) B multzoa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak.

4. artikulua.– Ikastaroetan parte hartzeko baldintzak.

Irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroetan parte hartu nahi duten ikastetxeek klaustroaren % 60k, gutxienez, ikastaroan parte hartuko duela bermatu beharko dute.

Etapak bakoitza baino gehiago duten ikastetxeen kasuan, ikastetxeak ikastetxe osorako edo etapa jakin baterako egin dezake eskabidea. Azken kasu horretan, gutxienez etapa horretako irakasleen % 60k parte hartuko duela bermatu beharko du.

Hauek izango dira etapak:

- a) Haur eta Lehen Hezkuntza.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- c) Batxilergoa.
- d) Lanbide Heziketa.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

a) Baliabide elektronikoen bidez aurkeztu eta izapidetuko dira eskabideak.

b) Eskabideak aurkezteko epea hamabost lanegunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera. Helbide hauetan aurkeztuko dira:

Hirugarren artikuluko bigarren paragrafoan deskribatutako A multzoko zentroek (Hezkuntza Sailarenak diren ikastetxe publikoek) helbide honen bidez aurkeztuko dituzte: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/irale-2022-2023>

Eskabidea egin ondorengo izapideak «Nire eskabideak» gunearen bidez egingo dira: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/nire-eskabideak>

Hirugarren artikuluko hirugarren paragrafoan deskribatutako B multzoko zentroek (itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoek) helbide honen bidez aurkeztuko dituzte: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1063805>

Bide elektronikoz egindako eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko nire karpeta espazioa erabiliz egingo dira. (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak eskuragarri daude helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Elektronikoki ere izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaria Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarien Erregistroan inskribatu ahal izango da, eta helbide honetan eskuratu ahal izango da: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

c) Eskabideak III. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztuko dira.

d) Ikastetxe bakoitzak ezingo ditu bi ikastaro baino gehiago eskatu.

6. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskabidean edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioan forma-akatsak edo omisioak atzeman ez gero (halakorik aurkeztu bada), interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

7. artikulua.– Plazen behin-behineko esleipenaren ebazpena.

a) Sailburuordeak ebazpena emango du ikastaro bakoitzeko plazen behin-behineko esleipen-zerrendak ontzat emateko.

b) Era berean, ebazpen horretan prozeduran baztertutako eskabideen zerrenda ere argitaratuko da, adierazita eskabidea zein ikastarotarako baztertu den eta baztertzeko arrazoi zehatzak.

c) Zerrendak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) nahiz «herri-ikastetxeak» atarian (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>) argitaratuko dira.

d) Ebazpen horren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, argitaratzen denetik lau eguneko epean.

Erreklamazioak bide elektronikoz aurkeztuko dira, 5. artikuluan adierazten den bezala.

8. artikulua.– Behin-behinean esleitutako ikastaroari uko egitea.

a) Behin-behineko esleipenaren ebazpena argitaratu eta lau eguneko epean, ikastaro baten esleipena lortu dutenek uko egin diezaioke ikastaro horri.

b) Uko-egiteak bide elektronikoz aurkeztuko dira, 5. artikuluan adierazten den bezala.

9. artikulua.– Ikastaroen behin betiko esleipen-ebazpena eta erreserben zerrenda.

a) Hezkuntzako sailburuordeak ebazpena emango du ikastaro bakoitzeko taldeen behin betiko esleipen-zerrendak ontzat emateko.

b) Zerrendak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) nahiz «herri-ikastetxeak» atarian (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>) argitaratuko dira.

c) Ebazpen horrek barne hartuko du ikastaro bakoitzerako onartutako taldeen zerrenda. Baldin eta, ikastaroa hasi baino lehen, talderen bat esleitu zaion ikastetxe batek baja eskatzen badu, erreserba-zerrendarekin esleituko dira plaza horiek.

d) Behin betiko ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, ebazpenok argitaratu eta hilabeteko epean.

10. artikulua.– Taldeak esleitzeko irizpideak.

Ikastaroak zein ikastetxeri esleitu erabakitzeko, agindu honen bigarren eranskinean jasotzen den baremazioa erabiliko da.

Ikastetxeak II. eranskinean zehazten den baremoaren arabera sailkatuko dira, eta lehenengo dagoen ikastetxetik hasita, eskabidean ezarritako lehentasun-hurrenkeran lehenengo jarri duten ikastarorako eskatutako talde guztiak esleituko zaizkie, eskainitako plaza-kopurua agortu arte.

Ikastetxe bati bigarren ikastaro bat esleitu aurretik, baldintza guztiak betetzen dituzten ikastetxeei eta erakundeei ikastaro bana esleitu zaien begiratuko da, eta, ikastarorik esleitu ez zaionik baldin badago, horri emango zaio lehentasuna, ahal izanez gero.

Ikastetxe txikien kasuan, ikastetxe bat baino gehiago bildu ahal izango dira eskabidea egiteko, betiere, bildutako ikastetxeen klaustroetako kideen baturak 4. artikuluan ezarritako baldintza betetzen badute.

Eskainitako taldeak ikastetxeen artean banatu ondoren esleitu gabeko talderik gelditzen bada, talde horiek eskabidea egin duten Hezkuntza Sailaren gainerako zentroen artean banatuko dira. Eskabide guztiei erantzuterik ez badago, zozketaz ebatziko da.

Ikastaroak emango dituzten entitateak kontratatzeko prozeduran, ikastaroren bat esleitzeke gelditzen bada, ikastaro hori bertan behera geldituko da.

11. artikulua.– Taldeak osatzeko irizpideak.

Eskabidea egin duen zentro bakoitzak adierazi beharko du zenbat talde osatu nahi dituen ikastaro bakoitza egiteko; betiere irizpide hauek beteta:

a) Talde bakoitzean 8 pertsona egongo dira, gutxienez, eta 20 gehienez.

b) Taldeetako partaide guztiek izan behar dute egiaztatuta HE2, EGA edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera.

c) A multzoari dagozkion taldeetatik (Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publikoak eta Hezkuntza Sailaren gainerako zentroak (hizkuntza eskolak, berritzeguneak, ingurugelak, ikuskaritzak, ISEI-IVEI institutua...), honako hauek izan daitezke partaide: ikastetxe publikoetako irakasle funtzionarioak, finkoak, ez-finkoak eta bitartekoak, eta Ikastetxe publikoetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoak eta aldi baterakoak.

d) B multzoari dagozkion taldeetatik (Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak), honako hauek izan daitezke partaide: Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak eta ez-finkoak; Haurreskolak Patzuergoko irakasleak eta hezitzaile finkoak eta ez finkoak, eta ikastetxe pribatuetako hezkuntza bereziko lan-legepeko hezitzaileak eta 0-3 bitarteko irakasle edo hezitzaileak; baita Hezkuntza Sailarenak ez diren zentro publikoetako langileak ere.

e) 2022ko irailetik abendura bitartean egin beharreko ikastaroetarako, ikastetxeek 2022ko irailaren 15a baino lehen bidali beharko dituzte dagokien Lurralde Ordezkaritzako Euskara Atalera parte hartuko duten pertsonen zerrendak.

f) 2023ko urtarrietik ekainera bitartean egin beharreko ikastaroetarako, zerrenda horiek 2023ko urtarrilaren 16a baino lehen bidali beharko dituzte.

Zerrendak betetzeko orduan, kontuan hartu beharko da aurreko urteetan dagoeneko ikastaro bererako matrikula egin duten pertsonak ezin izango direla matrikulatu.

12. artikulua.– Ikastaroak non emango diren.

Ikastaroak ikastetxean bertan edo ikastetxeak aukeratutako leku egoki batean emango dira.

13. artikulua.– Ikastaro amaierako agiriak.

Ikasketariei ez zaie ikastaroa egin izana aitortuko baldin eta ikastorduen % 80ra, gutxienez, joan ez badira.

14. artikulua.– Datuen babesari buruzko informazio oinarrizkoa.

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Irakasleen formakuntza.

– Arduraduna: Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

– Helburua: irakasleen formakuntzarako aktibitateak. Irale irakasleak euskaldundu edo alfabetatzeko programa. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana (Prest Gara Plana). Aipatu aktibitateen jarraipena.

– Legitimazioa:

• Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak:

• Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

• Euskaltegiak, boletina, HABE.

– Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

– Informazio osagarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050300-cap2-eu.shtml>

– Araudia:

• Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

• 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

2022ko apirilaren 22a, ostirala

15. artikulua.– Dokumentuen egiazkotasuna.

Deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeek eta pertsonak baimena ematen diote Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari edozein erakunde publikotan frogatzeko aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, zeinak administrazio-bidea agortzen baitu, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2022ko apirilaren 22a, ostirala

I. ERANSKINA
IKASTAROEN ESKAINTZA

Kodea	Ikastaroa	Iraupena (ordutan)	Taldeak	Noiz egitekoa
H4	Ipuingintza eta Kontalaritza.	10	13	2023ko urtarrila - ekaina
H5	Euskal kantak eta jolasak.	10	9	2023ko urtarrila - ekaina
H7	Soziolinguistika: Taller d'Espai Lingüistic Personal (TELP)	10	5	2022ko iraila - abendua
H11	Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna.	20	20	2022ko iraila - abendua
H12	Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako.	14	75	2022ko iraila - abendua
I1	Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa.	14	50	2023ko urtarrila - ekaina
I7	Ahozko hizkuntzaren lanketa.	30	6	2023ko urtarrila - ekaina
I8	Hizkuntza Trataera Integrala garatzen.	25	50	2023ko urtarrila - ekaina

2022ko apirilaren 22a, ostirala

II. ERANSKINA
IKASTETXEEN ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Irizpidea	Puntuak
D eredukoa izatea	4
D/B eredukoa izatea	3
B eredukoa izatea	2
B/A eredukoa izatea	1
Parte-hartzaileak: klaustroaren edo etapako irakasleen % 80 edo gehiago	4
Parte-hartzaileak: klaustroaren edo etapako irakasleen % 70-% 79,9	3
Parte-hartzaileak: klaustroaren edo etapako irakasleen % 60-% 69,9	2
Ulibarri Programan egotea	3
Eleaniztasunerantz/Irakurketa plana programan egotea	2
EUSLE harrera-programan egotea	2
Hamaika esku programan egotea	2
2021-2022ko urteko planaren helburuetan euskararen irakaskuntzarekin lotutako jarduerak aurreikustea.	2

Berdinketa gertatuz gero, ikastetxe publikoen partaidetza 2/3ekoa eta itunpekoena 1/3ekoa izatera joko da, eta ratio horretatik behera dagoen ikastetxearen alde egingo da.

2022ko apirilaren 22a, ostirala

III. ERANSKINA
ESKABIDE-EREDUA

IKASTETXEAREN KODEA: IKASTETXEAREN IZENA: HERRIA: LURRALDEA: ESKATZEN DEN IKASTAROA: - Ikastaroa egingo duten taldeen kopurua: - Ikastaroa egingo duten pertsonen kopurua: - Klaustroa edo etapa osatzen duten irakasleen kopurua:	
Ikastaroan nortzuek parte hartuko duten	<input type="checkbox"/> Ikastetxe osoko irakasleek <input type="checkbox"/> Haur eta Lehen Hezkuntzakoek <input type="checkbox"/> Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoek <input type="checkbox"/> Batxilergoek <input type="checkbox"/> Lanbide Heziketakoek
Ikastetxearen hizkuntza-eredua	<input type="checkbox"/> D eredia <input type="checkbox"/> D/B eredia <input type="checkbox"/> B eredia <input type="checkbox"/> B/A eredia <input type="checkbox"/> A eredia
Ikastaroan parte hartuko duten irakasleen portzentajea	<input type="checkbox"/> Klaustroaren edo etapako irakasleen % 80 edo gehiago <input type="checkbox"/> Klaustroaren edo etapako irakasleen % 70 – % 79,9 <input type="checkbox"/> Klaustroaren edo etapako irakasleen % 60 – % 69,9
Ikastetxea Ulibarri Programan dago	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Ikastetxea Eleaniztasunerantz programan dago edo irakurketa plana du	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Ikastetxea EUSLE harrera-programan dago	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Ikastetxea Hamaika esku programan dago	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Ikastetxeko urteko planaren helburuetan euskararen irakaskuntzarekin lotutako prestakuntza-jarduerak aurreikusten dira (Hala badagokio, erantsi prestakuntza jarduerari dagokien zatia)	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ

Oharra: eskabidea aurkeztearekin, ikastetxeak ziurtatu egiten du eskabidean jarritako datuak egiazkoak direla.